

Hura bidaia




Juantxo Koka eta bere emaztea Puerto Banusen izan ziren 2002ko uztaillean. Pilotari altzatarrak esan digunez, ez zuten pertsonaia ospetsurik ikusi. Hori bai, zur eta lur geratu ziren bertan ikusitako luzuzko autoekin zein itsasontziekin. Argazkiko itsasontzi puskari erreparatuta, ez da harritzekoa!

Kresal usaina

Pakito, gau txori?

Orain arte, Aquariumeko sarrera parean jende pila izaten zen itsasoari begira, Pakito noiz aterako zain. Jakina denez, Pakitok udaberrian utzi gintuen, eta Pasaietan dabil orain. Bisita egin nahi badiozu, hobe duzu Pasaiara iluntzean joatea. Pasai San Pedro eta Pasai Donibane arteko bidea egiten duen txalupako gidariak esan digunez, "Pakito alfer samar dabil egun partean, baina gauean izugarritzko saltoak egiten ditu Pasai Donibaneko elizaren parean".

Zer nolako autoa!



Astearte gauean, Ferrari auto etxeko F-40 autoa ikusi ahal izan genuen Ar-

zak jatebtxearen atarian. Handik pasatu ginen guztiok zeharo harrituta geratu ginen auto ikusgarriari begira. Irudian ikusten denez, sukaldari batek ere ezin izan zion ibilgailuan, kanpotik behintzat, kuxkuxeatzeko tentazioari muzin egin.

Mozkor gabarroiraino

Mozkorraldiak sanferminetako osagaletako bat direla konprobatu ahal izan dute egunotan Donostiako hondartzetako sorosleek. Izan ere, Iruñetik etorritako hainbat australiar eta kolonbiarrei, eta baita donostiarren bati ere, mozkor-mozkor eginda gabarroiraino igeri egitea otu zaie egunotan; batzuk jaietako txano mitikoa buruan zutela, eta beste batzuk galtza bakeroekin... Hori da hori igerilari iburra! Badaezpada, sorosleek hain bila joan behar izan zuten zodiak-ean...

Eguraldia

Aste hasierako tenperatura freskoak atzean utzi ditugula dirudi. Eta asteburuan sarogona izango dugula larunbatean eta igandean, termometroak 30-32 graduren bueltan ibiliko dira. Beroarekin ondoz, okatza bota lezake. Astelehenean eta asteartean, berriz, lehioak izango ditugu lagun.

Bisitariak mintzo



Australia



Georgina eta Annie

Zerk bultzatuta etorri zarete Donostiara?

Gure lagun batzuek hona etortzea gomendatu ziguten. Gainera, turismo gida liburuetan, Donostian buruz aurkitu genituen aipamenak ezin hobekak ziren; kostaldeko hiri zoragarrienetakotzat jotzen dute.

Zer iruditu zaiyue hiria?

Gustatu zaigu. Urgull mendia oso txoko polita iruditu zaigu. Bestalde, itsasoan bainatu gara, eta ura oso oso garbi dago.

Zuen ustez, zer da deigarriena?

Batetik, eraikin zaharrak. Izan ere, Australian den dena egin berria da, ez dago ezer zaharrik. Bigarrenik, aste hasierako euri zaparradek ere us tekabeen harripatu gintuzten. Hirugarrenik, Kontxako barandaren obrenatik, udaletxe ingurutik badia ikusi ezinak pena eman digu.